



ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA, ARTIBAKO PRESAREN, OIOLAKO PRESAREN ETA BUSTURIKO EUT-REN BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIOEN BIRGAITZE ELEKTRIKOKO ETA KONTROLEKO OBRAK KONTRATATZEKO (ESP.: 3117), EUOPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOAREN FUNTSEKIN FINANTZATUA, ZEHAZKI, «ITSASERTZA ETA BALIABIDE HIDRIKOAK ZAINTEA» 5. OSAGAIAREN «TRANSTIZIO DIGITALA URAREN SEKTOREAN» 3. INBERTSIOAREN ESPARRUAN

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLaren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLaren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Xabier Bikandi Markaida
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsulta: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: ARTIBAKO PRESAREN, OIOLAKO PRESAREN ETA BUSTURIKO EUT-REN BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIOEN BIRGAITZE ELEKTRIKOKO ETA KONTROLEKO OBRA, EUOPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOAREN FUNTSEKIN FINANTZATUA, ZEHAZKI, «ITSASERTZA ETA BALIABIDE HIDRIKOAK ZAINTEA» 5. OSAGAIAREN «TRANSTIZIO DIGITALA URAREN SEKTOREAN» 3. INBERTSIOAREN ESPARRUAN

2.- Zer beharri erantzun behar zaien: BBUPEk behe-tentsioko instalazio elektrikoak dituzten kokaleku ugari kudeatzen ditu. Instalazio horiek operatibo daude eta, gainera, indarreko araudia bete behar dute. Mantentze-lanen eta aldian-aldian egiten diren legezko ikuskapenen ondorioz, antzeman da araudia betetzen dela eta erabilgarri egotea bermatu ahal izateko zenbait jarduketa egin behar direla.

3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Loteka ez banatzeari buruzko justifikazioa: Kontratuaren xedea dela-eta, zerbitzu-ematean parte hartzen dutenek modu koordinatuta jardun behar dute; izan ere, denen zereginak elkarri oso lotuta daude, eta horrela bermatzen da lanak behar bezala egikaritzea. Zerbitzu-ematea ez bada modu bateratuan egiten, zaila izango da kontratua behar bezala gauzatzea ikuspuntu teknikitik. Kontratuaren xedea loteka banatuz gero, kontratua egikaritzearen kontrola ez da hain optimizatua izango eta zerbitzu-ematea ezingo da modu koordinatuan egin; beraz, efizientziari eragingo dio horrek guztiak.

4.- CPV:



B.- KONTRATUAREN XEDEA

CPV kodea:45310000-3

Deskribapena: Instalazio elektriko lanak

5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Izaera juridikoa

☒ Administratibo ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZa gabe)

LAUREHUN ETA HIRUROGEITA LAU MILA
ZORTZIEHUN ETA HOGEITA ZAZPI EURO ETA
HIRU ZENTIMO (464.827,03 €)

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: LAUREHUN ETA HIRUROGEITA LAU MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA ZAZPI EURO ETA HIRU ZENTIMO (464.827,03 €).

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Prezio unitarioak

4.- Urterokoak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontu-urterokoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:

2025. urtea: 622.01.169.32 partida. 200.000,00 euro

2026. urtea: 622.01.169.32 partida. 264.827,03 euro

5.- Prezioen berrikuspena:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

☒ BAI ☐ EZ

Funts mota: Europar Batasunaren Next GenerationEU Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren kontura finantzatua. Mekanismo hori Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduak, 2020ko abenduaren 14koak, ezartzen du, zeinaren bidez COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko Europar Batasunaren Suspertze Tresna bat ezartzen baita. Horrez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren arabera arautzen da.

Elkarrekin finantzatuta: % 76,15 (BEZari dagokiona izan ezik).

7.- Ordaintzeko modua: Hileroko ziurtagirien bidezkoa. Unitate osoak edo ehunekoak ziurtatuko dira, lanen aurrerapen-mailari zer dagokion, honako ohar hauekin: «Ekipoak» biltzeagatik ordainduko da, Legeak ezarritako mugen arabera, obran jaso ostean, eta beti, abalen kontra. Obraren aurrerapen-mailaren arabera, gehienez egindakoaren % 80 ordainduko da. Gainerako

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

% 20a horrela ordainduko da: (1) Instalazioak legeztatzea eta probak amaitzea: % 10 (2)
Behin betiko dokumentazioa ematea: % 10. Kontratistak eskainitako prezioaren % 20 atxikiko da
funtzionamendua egiaztatzeko softwarea edo datuen eta seinaleen karga behar duten partidetan.
Partida horiek ordainduko dira behin kontrol- eta automatismo-probak gainditu ondoren.

8.- Konturako abonua: Ez.

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa: HAMABI (12) HILABETE

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☐ BAI ☒ EZ

4.- Bermealdia: URTEBETE (1), behin betiko harrera-akta sinatzen denetik aurrera.

5.- Kontratua exekutatzeke lekua: BBUPen askotariko instalazioak.

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena —aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea— kontratuaren batez besteko urteko kopurua halako bat izan beharko da gutxienez.
(464.827,03 €)

G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

- Kontratuaren xedearen antzeko zerbitzuen edo lanen azken bost urteetako horniduren zerrenda. Organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako hornidurak hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea erosle pribatua denean, berriz, berak emandako ziurtagiri baten bidez, eta, ziurtagirik ez badago, enpresaburuaren aitopene baten bidez.
- Baldintza hau bete beharko da: exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoak kontratuaren batez besteko urterokoaren % 70 edo handiagoa izango da.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknika:

Halako kasuetarako, ez da kontuan hartuko kaudimenean eskatutako esperientzia. Bai, gainerako eskakizunak. Lanak egingo dituzten teknikariek mota honetako proiektuetan duten esperientzia hartuko da oinarri.

ENPRESA-SAILKAPENA

Eskatutako kaudimen teknikoaren ordezkari honako sailkapen honek balio izango du:

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai ☐ Ez

Eskatu beharreko taldea, azpitaldea eta kategoria: 1. taldea – 6. azpitaldea, 3. kategoria

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzailerak kontratua egikaritzeko proposamen tekniko bat aurkeztu beharko du, adierazitako puntu guztiak barne (jarraian adieraziko den ordenan).

1. Kontratuaren funtsezko alderdiak identifikatzea, zehaztasun-maila eta eskaintzan kontraesanik edo anbigutasunik ez egotea. Preskripzioen agirian eta kontratuko gainerako dokumentuetan hobetu daitezkeen alderdiak identifikatzea. Nola jokatu ezohiko beharren bat dagoenean eta larrialdietan.
2. Egin beharreko lanak egiteko proposatutako programazioa.
 - Egin beharreko lanak aurreikusitako epean zer-nola banatuko diren, horietako bakoitzerako aurreikusitako lan-kargaren arabera. Lantaldeen antolaketa.
3. Kontrol-sistemak.
 - Kontratu honetarako aurreikusitako laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumeneko kontrol-sistemak. Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumeneko planaren aurrerapen espezifiko eta ez-jeneralista bat barne hartzea.
 - Kontratu honetarako aurreikusitako kalitateko kontrol-sistema. Lanak egikaritzeko proposatutako autokontrol-plana barne hartzea.
4. Instalazioaren funtzionamendua ez oztopatzeko bitartekoak eta baliabideak.
5. Kontratua egikaritzeko antolamendu-egitura eta lantaldea.
 - Langileen organigrama eta zerrenda, kontratistaren ordezkariak hasita beheraka.
 - Aurreko ataleko pertsonen CVA, prestakuntza eta lanbide-esperientzia jasota (gehieneko luzera: alde bat pertsonako).
 - Wonderwareren «ziurtatutako integritate» ziurtagiria.
6. Lanak egikaritzeko esleitutako bitarteko materialak.
 - Aurreikusten denez erabiliko diren tresnak eta instalazioak, ezaugarriak eta jatorria zehaztuta. Enpresa hornitzaileekin edo azpikontratatu direnekin sinatutako konpromisoa erantsi beharko da.
 - Lantegiak, aldagelak eta bulegoak.
 - NBEak eta babes kolektiboko ekipoak.
 - Mota guztietako tresnak, ekipo elektronikoak eta neurtzekoak, eta abar. (Banatzeko eta esleitzeko proposamena —komunak, pertsonalak, eta abar—).
 - Ibilgailuak

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Bitarteko osagarriak: aldamioak, garabiak, plataformak, ekipo elektrogenoak, eta abar. Propioak edo azpikontratatuak (azpikontratatzea aurreikusita badago, enpresa hornitzaileekiko konpromisoa erantsi behar da).

7. Erabili beharreko materialak

- Eskainitako tresnak eta materialak ezaugarri nagusiekin eta merkataritza-erreferentzia osoekin lotzea. Aukera bat baino gehiago emateak, deskribapen generikoak egiteak eta «antzekoa» edo halako adierazpenak erabiltzeak ez dute balio izango. Eskainitako materialak lotesleak izango dira, eta ezin izango dira ordeztu eskaintza adjudikatu ostean, BBUPen Zuzendaritza Fakultatiboak idatzizko baimena eman ezean.

ESKAINITZA KANPO UZTEA ERAGITEN DUTEN EZ-BETETZE TEKNIKOAK

Proposamen teknikoak ez ditu berrogeita hamar (50) orrialde zenbakitu baino gehiago izango, eta ezaugarri hauek beteko ditu:

- DIN-A4 tamaina.
- Letra mota eta letraren gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta azpiko marjina: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjina: 2 cm.

Gehieneko orrialde kopurua zenbatzeko, indizea eta eranskinak 50 orrialde horien barruan kontabilizatuko da. Ez dira zenbatuko azala eta kontrazala.

50 orrialde baino gehiago aurkeztuko balira, balorazio teknikoan lehendabiziko 50 orrialdeak baino ez dira kontuan izango.

Testuak ez dira kontuan hartuko baldin eta behar dena baino txikiago den letra-mota badute.

Alderdi hauek egiaztatu beharko dira eta, hala egin ezean, lizitatzailerak kanpo geratuko da:

- Eskainitako ekipoek eskatutako gutxieneko zehaztapen teknikoak ez betetzea.
- Eskainitako ekipoen marka eta eredu zehatzik ez zehaztea; alegia, «edo antzekoa» adierazpenak erabiltzea.
- Eskatutako dokumentazio teknikoa ez aurkeztea edo behar bezala ez egiaztatzea.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatua, nahitaez idatzita I. eranskinen ereduari jarraikiz, eskainitako prezioan zerga guztiak, BEZa izan ezik, barne hartuta.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

- a) Prezioen zerrenda.
- b) Kontratuaren aurrekontua.

Lizitatzailerak agiri hau osatzen duten proiektu guztien guztizko prezioa aurkeztu beharko dute.

Prezio unitarioak izango dira proiektuen prezio unitario bakoitzari proposamen ekonomikoan egindako beherakada orokorra aplikatuz ateratzen direnak.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoki aurkezteko plataforma elektronikoen helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA / ADITUEN BATZORDEA.☐ Kontratazio-mahaia

Presidentea:

Ekaitz Menthaka Corral jn.

Kideak (titularrak):

Mikel Magunazelaia Pinaga jn.

Xabier Orue Moro jn.

Itziar Zarate Urrutia and.

Gerardo Latorre Pedret jn.

Jose Manuel Pereda Renobales jn.

Idazkaria (titularra):

Gerardo Latorre Pedret jn.

☐ Adituen batzardea**K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK****1.- Adjudikazio-irizpideak:**

Lehiaketa adjudikatzeko oinarri, baloratu beharreko alderdi gisa, erabili beharreko irizpideak, hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoa (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BBM) / 2	48 puntu
BBM	47 puntu
0,8 x BBM	46 puntu
0,6 x BBM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintza-zenbatekoaren arteko kendura zati lizitazio-aurrekontuaz egitean ateratzen dena, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- **BBM:** Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerako bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aterako da aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta.

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < B_i \leq 0,6 \times BBM$

$$P_i = \frac{B_i}{0,6 \times BBM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBM < B_i \leq 0,8 \times BBM$

$$P_i = 44 + \frac{(B_i - 0,6 \times BBM)}{0,2 \times BBM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBM < B_i \leq BBM$

$$P_i = 46 + \frac{(B_i - 0,8 \times BBM)}{0,2 \times BBM}$$

Baldin eta $BBM < B_i \leq (BBM + B_{max}) / 2$

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - BBM)}{(B_{max} - BBM)} \times 2$$

Baldin eta $(BBM + B_{max}) / 2 < B_i \leq B_{max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - BBM - B_{max})}{(B_{max} - BBM)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Zuzenketa-faktorea $K=1$

- **Exekuzioaren memoria teknika eta metodologia.....30 puntu**

- Kontratuaren funtsezko alderdiak identifikatzea, zehaztasun-maila eta eskaintzan kontraesanik edo anbiguotasunik ez egotea. Preskripzioen agirian eta kontratuko gainerako dokumentuetan hobetu daitezkeen alderdiak identifikatzea. 10 puntu
- Egin beharreko lanak egiteko proposatutako programazioa. 15 puntu
- Kontrol-sistemak. 5 puntu

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**• Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak.....20 puntu**

- Instalazioaren funtzionamendua ez oztopatzeko bitartekoak eta baliabideak 6 puntu
- Kontratua egikaritzeko antolamendu-egitura eta lantaldea 6 puntu
- Lanak egikaritzeko esleitutako bitarteko materialak 4 puntu
- Erabili beharreko materialak 4 puntu

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Zenbait eskaintzaren arteko berdinketa hautsiko da honako irizpide sozial hauek, eskaintzak aurkezteko epea bukatzeko momentuari buruzkoak, aplikatuz:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkeztean badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailerari, hautapen-prozesua jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan 25 puntu gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

Kontratistak kontratua gauzatzeko finkatutako azken epearen barruan bete behar du kontratua, eta elkarren jarraian egiteko izendatutako mugarri partzialak ere bete egin behar ditu. Kontratistak epe hori edo mugarri partzialak bete ezean, jarraian adierazten den zigorra ezarriko da. Berandutzeagatik zigorra ehuneko bostera iristen bada (% 5), BBUP kontratua deuseztatzen hasi ahal izango da. Zigorren batura ezin izango da izan kontratuaren aurrekontuaren % 10 baino handiagoa.

Mugarri partzialak

Mugarri partzial hauek ezartzen dira, guztiak ere zuinketa egiaztatzeako akta sinatzen denetik zenbatzen hasita, obrak kontrolatzeko eta zigorrak aplikatzeko:

- Obraren plangintza entregatzea.....	1 hilabete
- Materialak onartzea eta eskaerak egitea	2 hilabete
- Eskema elektrikoak, zeregin-koadernoak eta pantailak onartzea	7 hilabete
- Egindako 1. instalazioa abiaraztea	9 hilabete
- Egindako 2. instalazioa abiaraztea	10 hilabete
- Egindako 3. instalazioa abiaraztea	11 hilabete
- Legeztatzea eta dokumentazioa entregatzea	12 hilabete

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAN adierazitako kasuak eta ekintzak.

Honako zigor hauek ezartzen dira mugarri partzialak ez betetzeagatik: Hilabeteak zuinketaren egiaztapenaren akta sinatzen denetik hasiko dira zenbatzen.

- Mugarri bakoitzerako atzerapenaren lehen astea graziazkoa da. Graziazko aste horretatik aurrera, atzeratutako aste/proiektu bakoitzeko 200,00 euroko zigorra aplikatuko da mugarri bakoitzerako; gehienez kontratuaren % 10, baina BBUPek kontratua deuseztatzeako ahalmena izango du % 5etik aurrera.
- Epeak betetzeko aurkeztu diren baina osatu gabe dauden edo eskasak diren lanak baztertu egingo dira, eta aurkeztu gabeko lan gisa zenbatuko dira. Jabetzak (BBUP) erabakiko du, bere irizpidearen arabera.
- Lan eskasengatik zigorra. 500 euroko zigorra ezarriko da lan eskasa egiteagatik eginiko ohararazpen bakoitzeko.
- Laneko istripuengatik zigorrak:
 - o Obra-zuzendaritzari gertakaria jazo eta lehen 24 orduetan jakinarazten EZ zaion bakoitzean (*in itinere* istripuak barne), edozein gorabehera edo istripu honako zigor hauekin zigortuko da:
 - 500 euro gorabeheretan, lehen aldian. 1.000 euro bigarrenetan eta horrela hurrenez hurren (500 x gorabehera kopurua).
 - 1.000 euro istripuetan, lehen aldian. 2.000 euro bigarrenetan eta horrela hurrenez hurren (1.000 x istripu kopurua).
 - o Istripu arin bakoitzeko, *in itinere* istripuak izan ezik, 500 euroko zigorra ezarriko da.
 - o Istripu larri (edo larriago) bakoitzeko, *in itinere* istripuak izan ezik, 1.000 euroko zigorra ezarriko da. Eta, gainera, 150 euro ukitutako langile bakoitzaren baja-eguneko. Langileak obrakoak, aholkulariarenak (azpikontratatuak barne) eta BBUPeko edo instalazioan lan egiten duten beste enpresa batzuetako langileak izango dira.



M.- ZIGOR ZEHATZAK

- Zigorrak jabetzak obrarako baimendu gabeko energia- edo ur-iturriak erabiltzeagatik. Aldi bakoitzean 500 euroko zigorra ezarriko da.
- Euria egiten duenean hondatzeko moduko ekipoak deskargatzeagatik. Aldi bakoitzean 1.000 euroko zigorra ezarriko da.

Zigor horiek Jabetzaren (BBUP) irizpidearen arabera aplikatuko dira beti.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatik erantzukizuneko aseguru dagoelako egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kontura finantzatutako kontratuei dagokienez, aurreikusi gabeko aldaketak izan litezke zehaztutako betekizunak aldatu beharra dagoelako arau-aldaketek planari buruzko ezaugarri/kondizio desberdinak ekartzearen ondorioz.

Kontratua aldatzeko kausa izango da agintari arduradunak agintzea DNSHaren eta etiketa berde eta digitalaren arloan neurri zuzentzaileak hartu beharra dagoela.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasieran aurkezteko betebeharra
☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☐ BAI
☒ EZ

R.- SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA

OSAGAIA:

Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana lau helburu handitan dago eratuta (Espainia berdea; Espainia digitala; Espainia, genero-arrakalarik gabe; Espainia kohesionatua eta inklusiboa) eta hamar palanka-politika:

- I. Hiri- eta landa-agenda eta despopulazioaren kontrako borroka.
- II. Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak.
- III. Energia-trantsizio bidezko eta inklusiboa.
- IV. XXI. menderako administrazioa.
- V. Industria-ehuna eta ETEak modernizatzea eta digitalizatzea, turismoa suspertzea eta Espainia herrialde ekintzailea sustatzea.
- VI. Zientziaren eta Berrikuntzaren aldeko Ituna. Estatuko Osasun Sistemaren gaitasunak indartzea.

VII. Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena.
VII. Zainteten ekonomia berria eta enplegu-politikak.
IX. Kulturaren eta kirolaren industria sustatzea.
X. Zerga-sistema modernizatzea, hazkunde inklusibo eta jasangarria xede.

Palanka-politika horiek 30 osagaitan zehazten dira. **Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 5. osagaiaren** barruan (Itsasertza eta ur-baliabideak zaintzea) 3. inbertsioa dago («Eraldaketa digitala uraren sektorean»). Lizitazio honen edukia osagai horren barruan dago; kontratistak/azpikontratistak hura ezagutzen duela adierazten du, eta bere jardun-eremuan hura betetzea hitzematzen du.

Hartarako, hari lotutako helburuak betetzen lagunduko dute, Suspertze Planaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta Europa eta Espainia mailako suspertze-plana erregulatzeko araudiari jarraikiz. Zehazki, oinarri horiekin hauetan sar litezkeen jarduketak egingo dira:

C5.I3a azpineurria, ur-baliabideei buruzko ezagutza eta horien erabilera hobetzeari buruzkoa.

Ura eta energia erabiltzean efizientzia sustatzeko erarik onena uraren hiriko zikloaren kudeaketa integrala da, eta digitalizazioa, horrenbestez, uraren hiriko zikloa kudeaketaren efizientzia orokorrean hobetzeko zeharkako neurria da, eta osatu eta lagundu egiten du, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana diseinatuta dagoen bezala, «Baliabide hidrikoen ezagutza eta erabilera hobetzeko eta prezipitazioak eta beste datu meteorologiko batzuk erregistratzeko tresnak abian jartzea» 79. CID helburua betetzen, 91/271/EEE Zuzentaraua betetzea bermatzeko eta energia-efizientiaren irizpideak betetzeko, edo ura banatzeko sistemetan efizientzia hobetzeko eta ur-galerak murrizteko.

Inbertsioak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren C5.I1 azpineurrian sartzen direnez, egingo diren jarduerak bat etorriko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren «Klimaren aldeko ekintzaren jarraipen-metodologia» VI. eranskinaren «Ura kudeatzea eta ur-baliabideak kontserbatzea (ibai-arroen kudeaketa, klima-aldaketa egokitzeko neurri espezifikoak, berrerabilpena, ihesak murriztea barne)» 040 esku hartzeko eremuarekin.

Entitate deitzaileak egiazta dezan deialdiarekin lotutako mugarriak (lorpen kualitatiboak) eta helburuak (lorpen kuantitatiboak) bete direla, kontratistak/azpikontratistak epearen barruan eta behar bezala aurkeztu beharko ditu egoki iritzitako jarraipen-txostenak, zeinak honako honetan jasota dauden: HFP/1030/2021 Agindua (irailaren 29koa, SEEP kudeatzeko sistema eratzen duena) eta HFP/1031/2021 Agindua (irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarrien eta helburuen betetze-mailaren eta neurrian aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaren jarraipena egiteko).



	Bete behar du, era berean, urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa. Ez-betetzetzat hartuko da eskatutako jarraipen-txostenak ez aurkeztea, bai eta txostenok osatu gabe, epez kanpo eta agiriaren zehaztapenak aintzat hartu gabe aurkeztea.
JARDUKETA:	URDATA BIZKAIA I (A09)
Kontratazio-organoaren iruzurraren aurkako neurri-plana kontsultatzeko esteka	https://www.consorciodeaguas.eus/wp-content/uploads/2023/10/PLAN-MEDIDAS-ANTIFRAUDE_2024.pdf

KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEKO BETEKIZUNAK.

• BBUPen Prebentzio Sailaren eskakizunak betetzea. • BBUPen Ingurumen arloko betekizunak betetzea. • Lanean une oro prebentzio-baliabide bat izatea. • Lanak zerbitzuaren beharren mende egongo dira. Horregatik, edozein unetan eten edo atzeratu beharko dira, BBUPek hala eskatuz gero (modu arbitrarioan). Hori ez betetzea kontratua deuseztatzeko arrazoia izango da. • Zerbitzuak lehentasuna du obrako lanen aurretik, eta, ondorioz, obraren jarduera harekin bateragarriak diren egun eta ordutegieta eramango da. Hori dela eta, honako hauek aurreikusi behar dira: gauez eta asteburuetan lan egitea, lanak egin bitartean eten luzeak egotea, eta kondizio jakin batzuetan lanak aldi baterako eta aurreikusi gabe etetea; hori guztia BBUPerako kostu gehigarriak gabe. Adjudikaziodunak ez du aparteko konpentsazio ekonomikorik izango horregatik, eta, ondorioz, kondizio horiek obra-prezioetan baloratu beharko ditu. Betekizun hori ez betetzeak kontratua deuseztatzea ekar lezake. • Adjudikaziodunaren akats edo zabarkeria baten ondoriozko matxura larri batek eta istripu larri batek kontratua deuseztatzea ekar lezake. • Atzerapenagatik % 5eko edo gehiagoko zigorrak aplikatuz gero, horrek kontratua deuseztatzea ekar lezake.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak ordezkari bat atxikiko dio kontratuari; hura kontratistaren plantillan sartuta egongo da eta kontratu-zuzendaritzarekiko solaskidea eta lanen arduradun nagusia izango da.

KONTUAN IZAN BEHARREKO BESTE GAI BATZUK

Instalazioak bisitatzea



BBUPen webguneko kontratatzailearen profilean, instalazioak bisitatzeko deialdi bat argitaratuko da. Eskaintzak aurkeztu nahi dituzten lizitatzailleak joan ahalko dira, eta haiek PTPAri buruz izan ditzaketen galderari erantzungo zaie.